



## VII. ERANSKINA

### IKASTETXEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Oro har, azalduko diren jarduketa-faseetan, eskolak honako hauek hartuko ditu aintzat<sup>1</sup>:

#### IKASTETXEAK EGIN BEHAR DUENA:

- Susmoaren zantzuei adi egon.
- Tratu txarrak, sexu-jazarpena edo sexu-abusuak jasan dituela kontatzen duen ikasleari begirunez entzun.
- Haur edo nerabearen bat-bateko azalpena erregistratu: esaten duena hitzez hitz jaso eta kontakizunaren inguruabarrak zehaztu.
- Adingabearen intimitatea errespetatu.
- Hezkuntza-esparruko laguntza-talde eta talde teknikoei berehala jakinarazi.
- Kasuaren ezaugarriak zehazteko erabakigarriak izan daitezkeen datuak eta informazioak erregistratu, ahalik eta modurik objektiboenean eta balio-judiziorik eman gabe.
- Informazioa ahalik eta zuhurtasun eta konfidentzialtasun handienarekin tratatu.
- Familiari jakinarazi, horrek adingabearen integritatea arriskuan jartzen duenean izan ezik (familia barruko sexu-abusua, tratu txar fisiko larriak...). Kasu horietan, gizarte zerbitzuei eman beharko zaie egoeraren berri.

#### IKASTETXEAK EGIN BEHAR EZ DUENA:

- Ez du entzungor egin eta balio-judiziorik eman behar; ez dio haur edo nerabeari zalantzarik planteatu behar tratu txarren, sexu-jazarpenaren edo sexu-abusuen egiazkotasunari buruz edo gertatu direlako susmoari buruz.
- Ez du inola ere haurren edo nerabearen gorputza arakatu behar.
- Ez du galdeketa egin behar, langile eskudunek egiten baitute hori berriz ere biktimizazioan erortzea errazten ez duten babes-baldintza egokietan. Eskolak ez du tratu txarren eta sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuaren diagnostikorik egiten, ezta baieztatu ere; aitzitik, eskolak susmoa jakinarazten du.

---

<sup>1</sup> Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoeretarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako.